

Usurbilgo Udala

2019KO EKAINAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zampirain
Luken Arkarazo Silva
Oskar Santamaria Pikabea
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Carlos Pérez Fraisoli
Andoni Atxega San Sebastian
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Kontuhartzailea: Xabier Olano Jauregi.

Ez da bertaratu: Aroa Etxeburua Ugartemendia.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2019ko ekainaren 25ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

1.- ERAKETA BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek, 2019ko ekainaren 15ean izandako eraketa bilkurako akta aho batez onartu dute.



Usurbilgo Udala

2.- UDAL ARAUTEGI ORGANIKOAREN ALDAKETA (UDALBATZARRAREN OHIKO EGUNA ALDATZEA).

Alkateak adierazi du, bai EAJ-PNVrekin eta PSE-EErekin aurretik izandako bileretan aipatu ziren moduan, beraien ezintasun bat tarteko ezinezkoa dutela asteartetan ohiko bilkurak egitea eta proposatzen dutena da ohiko bilkurak hileko azken ostegunetan izatea.

Udal Arautegian jasota dagoenez ohiko bilkurak hileko azken asteartetan izango direla, beharrezkoa dela aipatu du arautegiaren aldaketa egitea.

Batzarkideek, alkatearen proposamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio erabakiak:

“Esp. zk.: ID.02/2019-0193

Gaur egun, Usurbilgo Udaleko Arautegi Organikoak jasotzen duena kontutan hartuta, Usurbilgo Udaleko Udalbatzarra hilean behin biltzen da hileko azken asteartean.

Ohiko bilkuren eguna hileko azken ostegunetan izatea nahi denez, Arautegi Organikoa aldatu egin behar da.

Ondorioz, 9.1. artikulua honela erredaktatuta geratuko litzaketeki: *“Alkate-Udalburuak hilean behin Osoko Bilkura Arrunterako deia egingo du. Saio Arruntak hilaren azken ostegunetan egingo dira.”*


Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikulua Erregelamendu eta bestelako Toki-araudiak eta beraien aldaketak onartzeko jardunbidea xedatzen du, honako pausoen arabera:

- Hasierako onespina: Udalbatza Plenoak.
- Erakusketa publikoa eta interesatuentzako entzunaldia, erreklamazio eta iradokizunak aurkez ditzaten: 30 egun.
- Plenoak egindako behin betiko onespina, eta erakusketako epearen barruan aurkezturiko erreklamazio eta iradokizunei erantzunak.
- Erakusketa publikoko epean inolako erreklamaziorik ez balitz aurkeztuko, araudia behin betikotzat onartua kontsideratuko da.

Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.d) atalak Udalbatza Plenoaren eskuetan uzten du Udaleko Erregelamendu Organikoa onartzeko eta hori aldatzeko ahalmen delegaezina (22.4 atala); onspen honek Korporazioa osatzen duten kideen gehiengo absolutuaren aldeko botoa behar du, aipatu Legearen 47.3.a) atalean xedatzen denaren arabera.

Hau guztia kontutan hartuta, Udalbatza Plenoak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA



Usurbilgo Udala

LEHENA.- Usurbilgo Udaleko Arautegi Organikoaren 9.1. artikulua onartzea.

9.1. artikulua modu honetan erredaktatuta geratuko litzakete: *“Alkate-Udalburuak hilean behin Osoko Bilkura Arrunterako deia egingo du. Saio Arruntak hilaren azken ostegunetan egingo dira.”*

BIGARRENA.- Arautegi Organikoaren aldaketaren hasierako onespina erakusketa publikoan jartzea 30 eguneko epean, interesatuek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ditzaten. Horretarako, dagozkion iragarkiak argitaratuko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Iragarki Taulan.

HIRUGARRENA.- Erakusketa publikoko epean inolako erreklamazio edo iradokizunik ez balitz aurkeztuko, Araudia behin betikotzat onartua kontsideratuko da.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Perez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Patxi Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

3.- BATZORDE INFORMATZAILEEN KOPURUA, IZENA ETA OSAKETA.

Alkateak adierazi du gaur egun dagoen udal antolaketari eustea proposatzen dutela.

Batzarkideek, alkatearen proposamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio erabakiak:

“Esp.zk.: ID.02/2019-0189

Batzorde Informatzaileen kopurua eta izena:

1. Hirigintza
2. Zerbitzuak
3. Antolaketa
4. Ongizate
5. Nekazaritza eta Ingurumena
6. Kultura, euskara eta gaztedia
7. Kirola
8. Parekidetasuna eta aniztasuna



Usurbilgo Udala

9. Ogasuna
10. Hezkuntza eta Tokiko Garapena
11. Pertsonala

Osaketa:

Batzorde Informatzaileak 5 kidez osaturik egongo dira eta talde politiko bakoitzak honako ordezkariak izango du:

- EH Bildu: 3 kide
- EAJ-PNV: kide 1
- Udal-talde Sozialista: kide 1”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue eta Patxi Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Andoni Atxega San Sebastian.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

4.- ZINEGOTZI LIBERATUEN DEDIKAZIOA ETA ORDAINSARIA.

Alkateak adierazi du EH Bilduren irizpidea dela Udalera etorri aurretik zinegotziak bere lanean zuen soldata mantentzea.

Gaineratu du alkatearen kasuan EH Bilduk erabakia duela biztanle kopuruaren arabera herri bakoitzeko alkateak ze soldata izan beharko lukeen eta proposamen honetan horretan oinarritu direla esan du.

Josune Urkolak adierazi du ez dutela ulertzen nola zinegotzi batek, nahiz eta alkateordea izan, alkateak baino soldata handiagoa izan dezakeen, alkatea izanik ordezkari gorena eta ardura gehiena duena.

Jarraitu du esanez EUDELEk badituela taula batzuk karguak eta soldatak zerrendatzen dituen eta hori dela beraiek babesten dutena. Bakoitza bere lanetik datorrela bai baina hemen egiten diren lanak alkate eta zinegotzi lanak direla gaineratu du.

Idazkariak argitu du udal gobernuak proposatzen duenak legea betetzen duela, ordainsariak gehiengoaren azpitik baitaude, beraz, erabat zilegi dela dio. Eusko Jaurlaritzako taulak erabiltzen direla esan du eta alkate eta zinegotzien kasuan hauek



Usurbilgo Udala

gehienez Eusko Jaurlaritzako zuzendari batek baino %10 gutxiagoko ordainsaria izan dezaketela, hau da, urteko kopuru gordina gehienez 64.080 eurokoa izan daitekeela.

Josune Urkolak galdetu du ea kargu politikoek hirurtekoak ere kobratzen dituzten.

Idazkariak erantzun dio legeak esaten duela hirurtekoak ordainsariaz gain kobratzen direla. Legeak diona irakurri du: "... *kanpoan utzita, hala balegokio, zerbitzu berezien egoeran dauden karrerako funtzionarioak jaso ditzaketen hirurtekoak, kontuan izanda, besteak beste, Toki entitateen izaera eta biztanleria*". Kasu honetan, Lur Etxeberria izango litzatekeela dio egoera horretan dagoena.

Batzarkideek, alkatearen proposamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio erabakiak:

"Esp.zk.: ID.02/2019-0188

a) Dedikazio osoa izango duten karguak.

Dedikazio osoa izango duten karguak alkatea, 1. alkateordea eta 2. alkateordea izango dira.

b) Zinegotzi liberatuen dedikazioa eta ordainsaria.

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Dedikazioa: Osoa.

Ordainsaria: Usurbilgo Udalean onarturik dauden ordain-erregimenen arabera, 18. maila.

1. alkateordea: Beñat Larrañaga

Dedikazioa: Osoa.

Ordainsaria: Usurbilgo Udalean onarturik dauden ordain-erregimenen arabera, 15. maila.

2. alkateordea: Lur Etxeberria

Dedikazioa: Osoa.

Ordainsaria: Usurbilgo Udalean onarturik dauden ordain-erregimenen arabera, 18. maila + dagozkion hirurtekoak.

c) Agurtzane Solaberrietaren kasuan dedikazio eta ordainsariak 2019ko ekainaren 17tik aurrerako eragina izango dute, Lur Etxeberriaren kasuan uztailaren 1etik aurrera eta Beñat Larrañagaren kasuan dagokionean.

d) Apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 75.5 atalean xedatutakoaren baitan Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan erabaki hauek argitara ematea.



Usurbilgo Udala

e) Udal kontu-hartzaileari erabaki honen berri ematea.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue eta Patxi Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Perez Fraisoli eta Andoni Atxega San Sebastian.

Beraz, erabakia gehiengoz onartu da.


5.- UDAL ORDEZKARITZA BESTE ORGANO ETA ERAKUNDEETAN.

Alkateak zehaztu du aurretik izandako bileretan beste udal taldeei UEMAn ordezkaritza izateko aukera eskaini zitzaiela, baina erantzunik ez dutenez jaso modu honetan ekarri dutela proposamena. Hala ere, momenturen batean ordezkaritza hori aldatu nahi balitz, horretarako arazorik ez litzatekeela egongo adierazi du.

Batzarkideek, alkatearen proposamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio erabakiak:

“Esp.zk.: ID.02/2019-0191

Erakundea	Ordezkariek	Ordezkoak
UEMA	Agurtzane Solaberrieta Oxkar Santamaria Luken Arkarazo Aroa Etxeburua	Beñat Larrañaga Lur Etxeberria Itziar Basterrika Joxe Mari Iribar
EUDEL	Agurtzane Solaberrieta	Beñat Larrañaga
EUSKAL FONDOA	Aroa Etxeburua	Itziar Basterrika
KONTSEILU ESKOLARRAK	Beñat Larrañaga	Itziar Basterrika
BEHEMENDI	Joxe Mari Iribar	Oxkar Santamaria
AÑARBE MANKOMUNITATEA	Lur Etxeberria	Agurtzane Solaberrieta
SAN MARKO MANKOMUNITATEA	Agurtzane Solaberrieta Joxe Mari Iribar	Lur Etxeberria Beñat Larrañaga
GARBITANIA	Lur Etxeberria	Agurtzane Solaberrieta
UDALBILTZA	Beñat Larrañaga	Agurtzane Solaberrieta
ELHUYAR FUNDAZIOA	Agurtzane Solaberrieta	



Usurbilgo Udala

BETERRI BURUNTZA	Agurtzane Solaberrieta Beñat Larrañaga	Lur Etxeberria Itziar Basterrika
------------------	---	-------------------------------------

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea eta Itziar Basterrika Unanue.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Perez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Patxi Suárez Pérez.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

6.- ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA:

6.1.- 2019/569 DEKRETUA: TOKIKO GOBERNU BATZARREKO KIDEEN IZENDAPENA.

Batzarkideei 2019/569 dekretuaren berri eman zaie eta jakinaren gainean geratu dira.

“2019/569 DEKRETUA

Esp.zk.: ID.02/2019-0187


AGURTZANE SOLABERRIETA MESA, Usurbilgo Udaleko alkateak, Toki-Jaubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1.b) artikulua xedatutakoa kontuan hartuz, indarreko legediak ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz, eta aipatu 7/1985 Legearen 23.1 artikulua, Toki-Administrazioen Antolamendua, Jarduera eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Legearen 41.3 eta 52.1 eta 2 artikuluek eta Udal Erregelamendu Organikoaren 5. artikulua diotenaren arabera, honako hau

XEDATZEN DUT

LEHENA: Usurbilgo Udaleko Tokiko Gobernu Batzarreko kide izendatzea honako hauek:

- Beñat Larrañaga Urdanpilleta
- Lur Etxeberria Gurrutxaga
- Joxe Mari Iribar Zapirain
- Itziar Basterrika Unanue

Guztiak udal honetan ordezkaritza duen EH Bildu talde politikoko kideak, indarreko arautegiak ematen dizkien eskuduntza eta prerrogatiba guztiekin.



Usurbilgo Udala

BIGARRENA: Xedapen honen berri zinegotzi interesatuei eta Udalbatzari ematea egiten den lehenengo osoko bilkuran, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan honen laburpena argitara eman dadila.

HIRUGARRENA: Xedapen hau Alkatetzaren Dekretu-Liburuan transkribatuko da, eta bere dataren hurrengo eguneko eragina izango du.”

6.2.- 2019/570 DEKRETUA: ALKATEORDEEN IZENDAPENA.

Batzarkideei 2019/570 dekretuaren berri eman zaie eta jakinaren gainean geratu dira.

“2019/570 DEKRETUA

Esp.zk.: ID.02/2019-0186

AGURTZANE SOLABERRIETA MESA, Usurbilgo Udaleko alkateak, Toki-Jaurbidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1.a) artikulua xedatutakoa kontuan hartuz, indarreko legediak ematen dizkion eskumenak erabiliz, eta aipatu 7/1985 Legearen 21.2 eta 23.3 artikuluek, Toki-Administrazioen Antolamendua, Jarduera eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Legearen 41.3 eta 46. artikuluek eta Udal Erregelamendu Organikoaren 4. artikulua diotenaren arabera, honako hau

XEDATZEN DUT

LEHENA: Usurbilgo Udaleko alkateordeak hurrenez hurren izendatzea, Udal honetan ordezkaritza duen EH Bildu talde politikoko kideak, indarreko arautegiak ematen dizkien eskuduntza eta prerrogatiba guztiekin:

- Lehen alkateordea: Beñat Larrañaga Urdanpilleta
- Bigarren alkateordea: Lur Etxeberria Gurrutxaga

BIGARRENA: Xedapen honen berri zinegotzi interesatuei eta Udalbatzari ematea egiten den lehenengo osoko bilkuran, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan honen laburpena argitara ematea.

HIRUGARRENA: Xedapen hau Alkatetzaren Dekretu-Liburuan transkribatuko da, eta bere dataren hurrengo eguneko eragina izango du.”

6.3.- 2019/575 DEKRETUA: ALKATEAREN HAINBAT ESKUMENEN ESKUORDETZEA.

Batzarkideei 2019/575 dekretuaren berri eman zaie eta jakinaren gainean geratu dira.

“2019/575 DEKRETUA



Usurbilgo Udala

Esp.zk.:ID.02/2019-0194

AGURTZANE SOLABERRIETA MESA, Usurbilgo Udaleko Alkate-Lehendakariak, Toki-Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.3 eta 23.4 artikuluek eta Udal Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoa arautzen dituen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 43.3 artikulua ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz, aipaturiko Erregelamenduko 114 eta hurrengo artikuluetan xedaturikoa kontutan harturik, honako hau

ERABAKI DUT

LEHENIK.- Tokiko Gobernu Batzarreko kide eta bigarren alkateordea den **LUR ETXEBERRIA GURRUTXAGA** zinegotziaren esku uztea bere jarduera eremua Ogasunari dagokionean zuzendu eta kudeatzeko eskurantzak orokorra. Hauexek dira, zehazkiago esanda, eskuordetze orokor honetan haren esku utzitako eskurantzak:

- Delegazioaren ordezkariak eremuan, alkatea eta Udala ordezkatzeko, alkatea ez dagoenean.
- Delegazioaren ordezkariak eremuan, Udalbatzarraren Osoko bilkuraren eta Tokiko Gobernu Batzarraren eguneko aztergai-zerrendetan sartzeko gaiak alkateari proposatzea.
- Bere ordezkariak eremuaren barne, ordenantzak, erregelamenduak eta udal akordioak argitaratu, bete eta bete daitezzen agintzea.
- Bere eskuordetzearen arloan beharrezkoak diren ebazpenezko nahiz izapidezko administrazio egintzak diktatzea, beste organoren bati ez badagozkio.
- Dagokion eremuaren egituraketa eta antolaketaren proposamena egitea alkateari.
- Zerbitzuen ohiko funtzionamenduak eragindako gastuak onartzea eta baimentzea delegazio eremuari atxikitakoak direnean, beti ere honako irizpideak kontutan harturik:
 - Edozein inizatiba hartu ahal izateko, aurrekontuetan behar adinako zuzkidura izan behar du.
 - Aurrekontuaren errekurtso arruntetik %5a gaintzen ez dutenean
 - Erabakitako gastuaz informatua izango du alkatea.
- Bere eremuko gaitan era guztietako diru-laguntzak eskatzea.
- Dagokion eremuko Aurrekontuen aurreproiektua garaiz prestatzea, finkaturiko epeetan Udalak onartu ahal ditzan.
- Eskuordetutako eremuari loturiko baliabide fisiko eta giza baliabide guztiak sustatu, koordinatu eta kontrolatzea, udal helburuak hobeto bete ahal izateko.
- Udalaren izenean zerbitzuak eta, bere kasuan, hornidurak zuzendu, sustatu eta ikuskatzea, eskuordetutako jarduera esparruaren barnean erabaki direnean.
- Diru-laguntzak eta zerbitzuak ematea, dagokion arloan.
- Bere lan eremuaren barne sortzen diren gai arrunt eta tramitezko guztiak kudeatzea, erabakiak hartuz.
- Delegazio eremuari dagokionean aurrekontuaren errekurtso arruntetik %5a gaintzen ez duten zerbitzu eta horniduren kontratazioa, beti ere Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren jarraibideak errespetatuz.



Usurbilgo Udala

BIGARREN.- Ogasun arloari dagokionean ondorengo eskurantzak ez dira eskuordetuak ulertuko eta, beraz, alkatearen esku geratzen direla ulertuko da: kreditu eragiketak hitzartzea eta faktura zerrendak onartzea.


HIRUGARREN.- Tokiko Gobernu Batzarreko kide eta lehenengo alkateordea den **BEÑAT LARRAÑAGA URDANPILLETA** zinegotziaren esku uztea zigor-jardunbideari hasiera ematea udalaren eskumeneko edozein arlotan eta instrukzio organoa izendatzea, zigor-jardunbidea ebazteko organo eskuduna alkatea izango delarik.

LAUGARREN.- Erabakitako delegazioen erregimen juridikoa honako hau izango da:

1. Alkateari dagokio zinegotzi delegatuen jarduera koordinatzea eta haien arteko eskumen arazoak ebaztea.
2. Ordezkaritzaren eremuaren barruan erabili behar dira emandako eskuduntzak eta bere titularrak ezingo ditu beste zinegotzi edo organoren esku utzi.
3. Zinegotzi delegatuak alkateari erabilitako eskuduntzen berri emango dio. Horrela, zinegotzi-delegatuen egitekoa izango da alkateari eskuordetuta daukaten eskumenaren kudeaketaren inguruko eta eskuordetzearen indarrez emandako egintza edo xedapenen inguruko informazio zehatza ematea.
4. Zinegotzi-delegatuek garrantzi bereziko erabakiak hartu aurretik alkateari horien berri eman behar diote.
5. Ordezkaritzak ez du epe mugarik, eta iraungo du ezeztatu arte, alkatetza honek bere agintaldia amaitu arte edo zinegotzi delegatuak espresuki bere karguari uko egin arte.

Alkatetza honek eskuduntza emate hau aldatu edota ezeztatu ahal izango du, hala irizten dionean. Alkateak eskuordetutako eskumena edozein unetan bereganatu ahal izango du, egokitzat hartzen duen zabaltasunez. Ekintza administratiboak ofizioz berrikusteko aurreikusitako moduan berrikusi ahal izango dira eskuordetutako agintariak emaniko ebazpenak.

6. Zinegotzi delegatuak bere eskumen eremuko gaietaz emandako ebazpen administratiboan testuan agertu behar da ebazpenak delegazioz emanak direla eta delegatu gabeko gaietaz emandako ebazpenen balio bera izango dute.
7. Zinegotzi delegatuak emaniko ekintzak berraztertze errekurtsoen bidez errekurritu ahal izango dira. Kasu guztietan, Alkate-Lehendakariak ebartziko ditu aipaturiko errekurtsoak.
8. Zinegotzi delegatua ez dagoenean, ordezkaritza eman gabe dagoenean, gaixorik dagoenean edo aritzeko beste edozein ezintasun duenean, alkatetza honek, eskuduntzen jatorrizko titularra den aldetik, bere gain hartuko ditu, zuzenean eta automatikoki, delegatutako eskuduntzak. Ondorio hauetarako,



Usurbilgo Udala

ulertu behar da eskuduntzak berreskuratzeko eskubidea erabili duela Alkatetza honek, Dekretu honetan oinarriturik, hartarako berariaz ebazpenik eman gabe.

BOSGARREN.- Dagokion zinegotziei Dekretu honen berri emango zaie, egoki iritziz gero, onar dezaten. Zinegotziek onartu dutela ulertuko da, dekretu hau jakinarazi eta hurrengo hiru eguneko epean ez badute ezer adierazten haren kontra.

SEIGARREN.- Osoko Bilkurari dekretu honen berri emango zaio haren lehenengo bilkuran, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta Udaletxeko Iragarki Taulan jarriko da.

ZAZPIGARREN.- Dekretu hau Alkatetzaren Ebazpenen eta Dekretuen Liburuan transkribatuko da eta indarrean sartuko da bosgarren atalean xedaturiko epean.”

7.- UDAL TALDE POLITIKOEN ERAKETAREN BERRI EMATEA.

Batzarkideei, udal talde politikoaren eraketaren berri eman zaie eta jakinaren gainean geratu dira.

“Esp.zk.: ID.02/2019-0185

Alkatetza honi zuzendutako idatzien arabera, Usurbilgo Udalean udal talde politiko hauek eratu dira:

EH BILDU udal talde politikoa

Agurtzane Solaberrieta Mesa (bozeramalea)
Beñat Larrañaga Urdampilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zapirain
Aroa Etxeburua Ugartemendia
Luken Arcarazo Silva
Oskar Santamaria Picabea
Itziar Basterrika Unanue

Usurbilgo EAJ-PNV udal talde politikoa

Josune Urkola Larrarte (bozeramalea)
Mirari Azurmendi Sorazu
Carlos Pérez Fraisoli
Andoni Atxega San Sebastian

Udal-Talde Sozialista udal talde politikoa

Patxi Suárez Pérez (bozeramalea)”

8.- 2019/464 DEKRETUA BERRESTEA.



Usurbilgo Udala

Alkateak adierazi du bi dekretu hauek aurreko legealditik datozela eta orain pleno honi dagokiola hauek berrestea.

Behin PIGRUGa onartuta, Udal honek beharrezkoa ikusi zuela dio horren aurkako helegite bat aurkeztea, ulertzen delako plan horretan udal eskumenak, udal eskubideak, beraz, herri honen eskubideak eta interesak ez daudela behar bezala jasota edo babestuta.

Plan horretan Gipuzkoako hondakinak kudeatzeko azpiegiturak proposatzen direla dio eta, aldiz, ez zaiela bidea batere errazten maila lokaleko azpiegiturei eta hain justu ere hori dela dio Usurbilek aurrera daraman hondakin politikak eta kudeaketak eskatzen duena, hau da, maila lokaleko azpiegiturak egitea, adibidez, auzo-konposta egiteko.

Hau guztia horrela, aurreko udal gobernuak beharrezkoa ikusi zuela esan du gure hondakinen kudeaketaren mesedetan eta ondorioz udalerrri jasangarri baten mesedetan, herri honen interesak babeste aldera, PIGRUGari helegitea aurkeztea.

Josune Urkolak adierazi du Batzar Nagusiek gehiengoz onartutako irizpide bat dela eta udal hau GHKren barruan dagoenez aurka bozkatuko dutela.

Alkateak erantzun dio gauza bat dela Batzar Nagusiek gehiengoz bozkatzea, baina beraiek ikusten dutena da Usurbilen herri eskubideak/eskumenak, hondakinen kudeaketa udal eskumena den aldetik, ez daudela behar bezala kontenplatuta plan horretan. Ondorioz, herri honen mesedetan aurkezten den helegite bat dela azpimarratu du, herri honek sortzen dituen hondakinak ahalik eta modu jasangarrienean kudeatzeko behar ditugun azpiegitura horiek egin ahal izateko hain zuzen ere.

Gaineratu du epaitegiek ikusi beharko dutela benetan hemen eskubide urraketa bat badagoen eta, hala badago, eskubide galera bat ere Usurbilek eta usurbildarrek ere badaukaten edo ez daukaten, hori dela dio helegite honen funtsa.

Batzarkideek, gehiengoz, alkatetzako 2019/464 dekretua berretsi dute, honela dio dekretuak:

“Esp. Zenbakia: ID.08/2019-0160

ALKATEAREN DEKRETUA

XABIER ARREGI IPARRAGIRRE Usurbilgo Udaleko alkateak, Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 k atalean xedatutakoaren arabera,

IKUSIRIK



Usurbilgo Udala

Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartutako "6/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorra onesten duena" publikoaren aurrean erakusgai egon ondoren, Usurbilgo Udalak aurkeztutako alegazioak kontutan hartu ez izana.

Legeak aurreikusitako epearen barruen administrazioarekiko auzi-errekurtsoa tartekatzea beharrezkoa jotzen dela.

KONTUTAN HARTURIK

Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 legearen 21.1.k) artikuluan, eta Administrazioarekiko Auzialdiak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/98 Legeak xedatutakoa.

Udal Idazkariaren Txostena, jarraian azaltzen dena:

Aurrekariak

Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartutako "6/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorra onesten duena" publikoaren aurrean erakusgai egon ondoren, Usurbilgo Udalak aurkeztutako alegazioak kontutan hartu ez izana.

Txosten eta izapidetza

Txosten hau izenpetzen duen honen iritziz, ebazpen hau ez dela zuzenbidearen araberakoa kontuan izanda, 6/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorra onesten duena, Usurbilgo Udal eskumenaren kalterako dela deritzogula, besteak beste, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 25.2.b atalean artikuluan jasotako eskumenak urratzen dituelako.

Aldi berean, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeko 9. artikulua Toki-autonomia eta 10. artikulua Autoantolaketarako ahalmenean ere zuzenean eragiten duelako.

Proposamena

2019ko apirilaren 26an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako, Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartutako "6/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorra onesten duena" Administrazioarekiko Auzialdiko auzibidean errekurritzea proposatzen da, Udal honen interesak defendatuz.

Horretarako, dagokin abokatu eta prokuradoreak izendatuko dira, Usurbilgo Udalaren ordezkartzan aritu ahal izateko dagokion auzi-organoetan.



Usurbilgo Udala

Errekurtsua aurrera eraman ahal izateko dekretua onartzea eta Usurbilgo Udalbatza Plenoari akordio honen berri ematea, ospatzen duen lehen bilkuran, erabaki hau berretsi dezan,

Hau da sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritziren kalterik gabe.

Usurbilen, 2019ko maiatzaren 13an
Udal Idazkariak,
Irantzu Arrizabalaga Gainza

ERABAKI DUT

LEHENA: Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartutako "6/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorra onesten duena" Administrazioarekiko Auzialdiko auzibidean errekurritzea, Udal honen interesak defendatuz.

BIGARRENA: Jarraian aipatzen diren abokatu eta prokuradoreak izendatzea Usurbilgo Udalaren ordezkartzan aritzeko dagokien auzi-organotan

- Abokatuak: Yolanda Lopez de Luzuriaga Anderea.
- Bilboko prokuradorea: German Ors Simon jauna

Udalak prokuradoreen alde emanak dituen ahalmen oro erabili ditzakete.

HIRUGARREN: Kontratu txiki honek eragindako gastua aurrekontuko 1 1200.226.920.00.04 2019 (3255) kontu izendapenaren kontura joango dira.

LAUGARREN: Usurbilgo Udalbatza Plenoari akordio honen berri ematea, ospatzen duen lehen bilkuran, erabaki hau berretsi dezan.

BOSGARREN: Erabaki honen berri izendaturiko Abokatuei eta Kontuhartzaitzari ematea."

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea eta Itziar Basterrika Unanue.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Perez Fraisoli eta Andoni Atxega San Sebastian.

Abstentzioa: Patxi Suárez Pérez.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.



Usurbilgo Udala

9.- 2019/474 DEKRETUA BERRESTEA.

Alkateak jakinarazi du dekretu hau ere ildo beretik doala. Eusko Jaurlaritzak atera berri duela dio auzo-konpostajea arautzeko arautegi bat eta bertan ezartzen direla esan du auzo-konpostak egiteko zer nolako baldintzak bete behar diren eta zer nolako neurriak hartu beharko liratekeen. Auzo-konpostarena arautzea ondo iruditzen zaiela dio baina ezartzen diren neurriak zorrotzegiak direla uste dute eta kasu honetan ere udal eskumenak kaltetuta geratzen direla gaineratu du.

Josune Urkolak adierazi du kasu honetan ere aurka bozkatuko dutela. Jarri diren baldintzak Eusko Jaurlaritzako teknikariek ondo aztertuta jarriko zituztela suposatzen dute eta horiek bete ezkeru Udalak egin nahi duena egin daitekeela uste dute.

Alkateak azpimarratu du beraiek ez dutela esaten bete behar ez direnik.

Joxe Mari Iribarrek adierazi du auzo-konposta ondo egin behar dela helburua lortzeko. Jarraitu du esanez kuriooa dela adibidez ikastoletan konposta baratzeetan erabili daiteke soilik helburu pedagogiko batekin, helburua hondakinak kudeatzea bada, orduan ezin omen da egin.

Arautegi honek erregulatzen duena herritarrek komunitatean egiten duten auzo-konposta dela azpimarratu dute, ez herri konposta edo beste planta batzuk.


Alkateak zehaztu du neurriak jartzearen aldekoak direla baina trabarik jarri gabe, zorrotasuna bai baina erraztearen helburuarekin.

Jose Mari Iribarrek azaldu du Foru Aldundiak erregulatzen duena herri-konposta izango litzatekeela. Kuriooa dela dio Foru Aldundiak ez duela herri-konposta hemen baimendu nahi eta momentu honetan IHOBE Araban eredu gisa aurkezten ari dela.

Batzarkideek, gehiengoz, alkatetzako 2019/474 dekretua berretsi dute, honela dio dekretuak:

“Esp. Zenbakia: ID.08/2019-0164

ALKATEAREN DEKRETUA



Usurbilgo Udala

XABIER ARREGI IPARRAGIRRE Usurbilgo Udaleko alkateak, Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 k atalean xedatutakoaren arabera,

IKUSIRIK

Eusko Jaurlaritzak “63/2019 DEKRETUA, apirilaren 9koa, komunitateko konpostaje-instalazio eta -jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituena.” onartu du, 2019ko apirilaren 16an EAE-ko aldizkari ofizialean 63/2019 dekretua argitaratu delarik.

Aipatu xedapenak, besteak beste, Usurbilgo Udal eskumenak urratzen ditu.

Legeak aurreikusitako epearen barruan administrazioarekiko auzi-errekurtsoa tartekatzea beharrezkoa jotzen dela.

KONTUTAN HARTURIK

Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 legearen 21.1.k) artikuluan, eta Administrazioarekiko Auzialdiak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/98 Legeak xedatutakoa.

Udal Idazkariaren Txostena, jarraian azaltzen dena:

Aurrekariak

2019ko apirilaren 16an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldikari ofizialean 63/2019 dekretua argitaratu da, komunitateko konpostaje-instalazio eta jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituena.

Usurbilen 2011. urteaz geroztik konpostaje komunitarioko guneak sustatu dira herriko hainbat guneetan.

Txosten eta izapidetza

Txosten hau izenpetzen duen honen iritziz, ebazpen hau ez dela zuzenbidearen araberakoa kontuan izanda, 2019ko apirilaren 16an EAE-ko aldizkari ofizialean 63/2019 dekretua argitaratu da, komunitateko konpostaje-instalazio eta jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituena onesten duena, Usurbilgo Udal eskumenaren kalterako dela deritzogula, besteak beste, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 25.2.b atalean artikuluan jasotako eskumenak urratzen dituelako.

Aldi berean, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeko 9. artikulua Toki-autonomia eta 10. artikulua Autoantolaketarako ahalmenean ere zuzenean eragiten duelako.



Usurbilgo Udala

Hau guztia, Usurbilgo Ingurumen eta Nekazaritza teknikariak eginiko txostenean oinarriturik eta 63/2019 dekretuaren baldintzak bete ezinak eta kaltegarriak direla oinarritzat harturik.

Proposamena

2019ko apirilaren 16an EAEko aldizkari ofizialean argitaratutako, 2019ko apirilaren 16an EAE-ko aldizkari ofizialean 63/2019 dekretua argitaratu da, komunitateko konpostaje-instalazio eta jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituen onesten duena, Administrazioarekiko Auzialdiko auzibidean errekurritzea proposatzen da, Udal honen interesak defendatuz.

Horretarako, dagokin abokatu eta prokuradoreak izendatuko dira, Usurbilgo Udalaren ordezkartzan aritu ahal izateko dagokion auzi-organoetan.

Errekurtsoa aurrera eraman ahal izateko dekretua onartzea eta Usurbilgo Udalbatza Plenoari akordio honen berri ematea, ospatzen duen lehen bilkuran, erabaki hau berretsi dezan,

Hau da sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritziren kalterik gabe.

Usurbilen, 2019ko maiatzaren 17an
Udal Idazkariak, Irantzu Arrizabalaga Gainza

ERABAKI DUT

LEHENA: 2019ko apirilaren 16an EAEko aldizkari ofizialean argitaratutako, 2019ko apirilaren 16an EAE-ko aldizkari ofizialean 63/2019 dekretua argitaratu da, komunitateko konpostaje-instalazio eta jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituen onesten duena Administrazioarekiko Auzialdiko auzibidean errekurritzea, Udal honen interesak defendatuz.

BIGARRENA: Jarraian aipatzen diren abokatu eta prokuradoreak izendatzea Usurbilgo Udalaren ordezkartzan aritzeko dagokien auzi-organoetan

- Abokatua: Yolanda Lopez de Luzuriaga Anderea.
- Bilboko prokuradorea: German Ors Simon jauna

Udalak prokuradoreen alde emanak dituen ahalmen oro erabili ditzakete.

HIRUGARRENA: Kontratu txiki honek eragindako gastua aurrekontuko 1 1200.226.920.00.04 2019 (3255) kontu izendapenaren kontura joango dira.

LAUGARRENA: Usurbilgo Udalbatza Plenoari akordio honen berri ematea, ospatzen duen lehen bilkuran, erabaki hau berretsi dezan.

BOSGARRENA: Erabaki honen berri izendaturiko Abokatuei eta Kontuhartzaitzari ematea.”



Usurbilgo Udala

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea eta Itziar Basterrika Unanue.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Perez Fraisoli eta Andoni Atxega San Sebastian.

Abstentzioa: Patxi Suárez Pérez.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

10.- GALDERA-ESKAERAK.

Josune Urkolak herriko jaien inguruan eskaera bat duela jakinarazi du. Santixabel jaiak Santixabelen ohorez antolatzen direnez, programan meza nagusia agertzea eskatzen dute.

Alkateak erantzun dio festa eta programa horren ardura Santixabeletako jai batzordearena dela, jai batzordea irekia dela, bilerak irekiak izaten direla eta bertan hartzen direla erabakiak. Edozein dela ere proposamena bertan egin beharrekoa dela uste du.

Jaien inguruan gaineratu du ostiralean hasten direla, arratsaldeko 7etan izango dela txupinazioa eta bertan parte hartzeko gonbita luzatu dio Udalbatza osoari. Txupina nork botako duen erabakitzeko proposamenak egiteko epealdi bat izaten dela aipatu du eta prozesu horretan herritar dezentek parte hartzen duela. Aurten egin diren proposamenen artean dagoela dio Bera Bera eskubaloi taldean jokatzeko duten bi jokalarik botatzea txupinazioa.

Jai batzordean parte hartzen duen Luken Arkarazo zinegotziak gaineratu du 30 proposamen inguru jaso direla.

Bestalde, alkateak jakinarazi du udal gobernuak, talde sozialistako zinegotziarekin batera, uztailearen 2an soka-dantza dantzatuko duela.

Carlos Pérezek adierazi du *“en el programa se dice que para adquirir la versión en castellano hay que pedirla, quería saber el por qué de esto. Y no me parece lógico que quien tenga que solicitarlo tenga que identificarse”*.



Usurbilgo Udala

Alkateak erantzun dio *“la versión en euskera es la que se reparte en todas las casas y los ciudadanos que quieran la versión en bilingüe tienen que venir al ayuntamiento y solicitarlo.”*

Carlos Pérezek adierazi du *“llama la atención porque es el ayuntamiento quien edita el programa y en cambio la revista Udalberri se publica en bilingüe”*.

Luken Arkarazok adierazi du ez dagoela bila joan beharrik interneten ere badagoela. Bestalde, hori horrela izatea ez dela Udalaren erabakia esan du baizik eta jai batzordearena; gaineratu du aurreko urteetan eztabaidatu izan dela gaia eta erabaki zela etxeetan euskara soilez banatzea eta bi hizkuntzetan udaletxean edo internetez eskuratzea.

Alkateak adierazi du garbi dagoela udal honek euskaraz funtzionatu nahi duela baina, era berean, udal bitarteko batzuetan elebitasuna bermatzen dela, adibidez, Carlosek aipatu duen Udalberri aldizkarian hizkuntza nagusia euskara izaten dela dio eta laburpenak erdaraz egiten direla.

Udal honek euskaraz aritzeko eta bizitzeko hautu bat egin duela azpimarratu du, hala ere euskaldunak ez direnei erdarazko informazio bat bermatzen zaiela esan du jaietako egitaraua elebitan ere argitaratzen delako. Bestalde, bere garaian jai batzordeak erabaki hori hartu zuela uste du nahiko ulergarria den testu batetaz ari garelako. Udalberri bezalako aldizkari batean, aldiz, bestelako testu batetaz ari garela uste du. Bi testuak ezin direla parekatu dio eta horregatik ematen dela ezberdintasun hori.

Josune Urkolak egitaraua internetez lortu daitekeenari buruz adierazi du ulertu behar dutela egitaraua erdaraz irakurri nahi dutenak gehien bat adineko pertsonak direla.

Luken Arkarazok adierazi du, alkateak aipatu duen moduan, egitarauko testua erabat ulergarria dela eta kontutan hartzekoa dela euskarak gaur egun duen garrantzia aisialdian.

Alkateak adierazi du helburua ez dela inondik inora ere inor baztertzea. Lehen aipatu duen moduan udal aldizkaria eta jaietako egitaraua bi bitarteko oso desberdinak direla dio eta ezin direla parekatu. Esan bezala, nahiz eta erdarazko bertsioaren bila etorri beharra izan informazioa bermatzen dela dio.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:37etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.